



MARISOL GARMENDIA: GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZAREN ERAIKINA AMARA AUZORAKO LORTZETIK GERTUAGO GAUDE

Marisol Garmendia, Donostiako Udaleko sozialisten bozeramailea, “ilusioz beterik” agertu da Gobernuak Pio XII.ean duen Ordezkariordeztaren eraikinak Amara auzorako erabilera zibikoak eta kulturalak izan ditzan.

Garmendia Isabel Rodríguez Lurralde Politikako ministroarekin eta Alfredo González Estatuko idazkariarekin bildu da Madrilén, eta interesa agertu dute Donostiako Udaleko bozeramaile sozialistak egindako proposamena aztertzeko, Denis Itxaso Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariekin batera.

“Harmena bikaina izan da, eta ministroak konpromisoa hartu du planteatutako proposamena aztertzeko, hau da, gaur egun Amarako Ordezkariordeztan lanean jarraitzen duten zerbitzu guztiak edo, gutxienez, batzuk birkokatzeke. Horrela, espazio horiek Amara auzoko zerbitzu komunitarioetarako erabili ahal izango lirateke. Bilera berriak egitea eta bi aldeek partekatutako helburuan aurrera egitea adostu dugu”, adierazi du Garmendiak.

Ertzain-etxea, NANaren bulegoa eta pasaporteak Aldunaenera eraman ondoren, Pio XII.ean atzerriartasun, txertaketa-zentro, osasun eta beste zerbitzu batzuk daude. “Ministroari adierazi diogu operazio horren garrantzia, aukera bat izango litzatekeelako Gobernuaren Ordezkariordeztaren egungo espazioek beste erabilera publiko batzuk izan ditzaten Amarako herritarrentzat eta Donostiako herritar guztientzat.”

“Lurralde Politikako Ministerioaren eta Donostiako Udalaren arteko behin betiko akordioa lortzea espero dut, Amara auzorako ekipamendu zibikoen eta kulturalen mapa garatuz”, amaitu du Marisol Garmendiak.